

1911: AMORRUA LEZON

KASU BATZUREN BERRI EMANEZ

Aurreko lantxoan gangeria edo kolera eta antzeko gaisotasunek bere garaian Lezon izan zuten eraginaz jardun ginen. Orain aipatuko dizkizuedan kontuak ez dira ordukoak bezain zaharrak denboraren aldetik baina arazoaren muinean dagoen gaitza egun nahiko urrunekoa da. Ezin esan dezakegu amorrua gure artean zabaldurik dagoen gaitza denik baina guztiok izaten dugu urtero gaitz honen aurkako txakur txertaketaren berri. Honez gain begitan hartua dugun pertsonaz sentitzen duguna adierazteko AMORRUA sentitzen dugula esan ohi dugu.

Esan bezala, egun amorrua edo «hidrofobia» animalia edo sentimentu kontua baino ez bada ere ez da urte asko gizakientzat gaisotasun arriskutsua zela, gaur egungo medikuntzaren aurrerapenek arazo hau gaingaitu duten arren. Gaitz honek jotako zakur baten hortzakadaz kutsatzen da gaisotasuna eta bere garaian sendatzen ez bada gaisoaren heriotza eragiten du. Garai hartako agiri batek honela agertzen ditu gaitzaren zantzuak:

Síntomas del perro atacado de rabia, según dictamen del Subdelegado de Veterinaria de este Distrito.

Cuando un perro se encuentra atacado de hidrofóbia, está triste, abatido, desea estar echado, se esconde por los rincones y huye de la luz; no ladra, pero gruñe con frecuencia, la voz es ronca y apenas se percibe, rehusa los alimentos y la bebida ó los toma en corta cantidad.

A los dos ó tres días los síntomas aumentan, el animal escucha con atención el más pequeño ruido, huye de la casa, su marcha es lenta y sin dirección, yendo de un lado á otro, los ojos están encendidos, brillantes, fijos y fieros, la cola metida entre las piernas, la boca abierta y llena de baba espumosa y la lengua pendiente.

En este período de enfermedad se presentan convulsiones y ataca á todos los que encuentra á su paso, mordiendo sin parar.

San Sebastián 17 de Febrero de 1899.

*El Gobernador-Presidente de la Junta provincial de Sanidad,
Godofredo de Bessón*

Gaitz hau nahiko mitiko bihurtu izan dugu denboraren poderioz eta beste gaisotasunetatik desberdin balitz bezala agertu izan zaigu. Orain urte bete kaleratutako ikerketa batek dioenez banpiroak eta «Drakula» amorruek jotako gizakiak baino ez ziren, besterik ez.

Dena den, oraingoan idaztera bultzatu nauenak ez du zer ikusirik banpiroekin, gogora ekarri nahi nituzke mende honen hasieran Lezon izan genituen zenbait amorruek eta hauek eragin zuten zalaparta. Nik neuk, orduan oraindik gazteegi, hamaika aldiz entzun izan nituen kontu hauek, egun, ordea, memoria ahultzen hasitako garaian,

ezer ziurrik ezin dudanez esan Udal Artxibategira jo dut horren berririk gorde den jakin asmoz, bai eta topatu ere bilaketa luze baten ostean. Agiri hauek esku artean mende honen hasierako urteetan Lezon izan genituen zenbait amorru kasuren berri emateko moduan nago:

Artxibategian gai honen inguruan gordetzen den lehen agiriak honela dio:

«Teniendo noticias de que un perro hidrofobo del caserío Palacio-Zarra de este término municipal, riñió y luchó en el día de ayer en con los animales de su clase en los caseríos Recalde y Gainza y mordió a un burro en la denominada Urune de esa jurisdicción donde con un tiro dieron muerte al can. He creído de mi deber dar a Ud. conocimiento de lo ocurrido para que en su vista fuera adoptar las precauciones que estimó, Ud. conveniente».

El alcalde de Lezo.



Datarik gabe ageri den gutun honen ondoren Lezoko udaletxean egindako salaketa baten agiria dator. Bertan salatzen denez 1911ko apirilaren 26an geroago tiroz hil zuten zakur batek Joaquin Veintemillas (12 urte), Prudencio Larrea (9 urte), Luis Inchaurrendieta (6 urte) eta Manuel Rouge (4 urte) hortzakatu zituen. Kasu honek herrian zalaparta handia sortu zuen zakur gehiago ere egon bait zitezkeen kutsaturik, dena dela, udal artxibategian ez dugu honen berririk. Antza denez hortzakatuak izan ziren haur hauek eta berauen sendiak guztiz landerrak izaki, ezin zieten honelako gaitz batek eskatzen duen mediku tratamenduaren gastuei aurre egin. Gauzak honela udaletxeak eta Foru Aldundiak biek erdi bana ordaintzea erabaki zuten. Ez uste izan, ordea, hori besterik gabe egin zutenik, ez horixe. Herriko bi gizonak lekuko gisa zin egin behar izan zuten kaltetuek nahiz hauen senideek ez zutela inongo aberastasunik. Aitortzera deituak Ignacio Maria Olasagasti eta Jose Luis Garmendia izan ziren.

Honela dio Jose Luis Garmendiaren aitorenak:


En la Universidad de Lezo á cuatro de Mayo de mil novecientos once, ante el Sr. Alcalde asistido del infrascrito Secretario, comparece el testigo don José Luis Garmendia, casado, mayor de edad y de esta vecindad, quien, después de prestar el debido juramento, prometió decir verdad en cuanto supiese y fuese preguntado. Y siéndolo por el Sr. Alcalde, contestó:

Que no le comprende las generales de la ley que le han sido explicadas.

Que no conoce á Deogracias Veintemillas, Miguel Larrea, José Juan Inchaurrendieta y Julián Rouge ni á sus respectivas familias, ninguna clase de bienes de fortuna, los cuales carecen por tanto de los recursos necesarios para sufragar los gastos que ha de ocasionar el tratamiento anti-rábico.

Hau ohizko bidea zen honelako kasuetan baina bistakoa da gaitzaren aipamenak berak eragiten zuen ikara eta zalaparta, emandako pausoen sendotasuna honen lekuko dira.

Herriko haur hauen zauriak sendatu eta egin beharreko azterketak egi-



tea 300 pezta kostatu zen, esan bezala Udala eta Aldundiak erdi bana ordaindu zuten. Ordain agiriak honela dio:

«Laboratorio Químico y Micrográfico Municipal =San Sebastián= La Alcaldia de la Universidad de Lezo =Debe= Por el tratamiento preventivo contra la rãbia á que han sido sometidos por orden de esa Alcaldia, los niños Prudencio Larrea, Joaquín Veintenillas, Manuel Rouge y Luis Inchaurrendieta =Pesetas 300= Son trescientas pesetas =San Sebastián 9 de Mayo 1911= Dr. S. Casadevante=»

Es copia

El Secretario
Fidel Otegui

Hortzaka egin ostean txakurra akabatu izanak ez dirudi, ordea, arazoa konpondu zuenik, lau hilabeteren buruan antza denez amorrak jotako beste zakur batek Vicenta Recarte y Yarzabal lezoar emakumea hortzakatu bait zuen honen senarra zen Jose Maria Legorburu Lizarazuk Lezoko Udaletxean egin zuen salaketan ageri denez.

Bigarren kasu hau aurrekoaren antzekoa da. Zakurra hil eta tratamenduaren gastuak Udalak eta Aldundiak erdi bana ordaindu zituzten gaisoaren sendiak ezin bait zuen halakorik ordaindu, oraingo honetan aurrekoan bezala Jose Maria Legorburu eta Jose Luis Garmendia izan ziren lekukoak.

Jakina da esandakoak ez direla gaitz honen inguruan sortutako kasu bakarrak baina Udal Artxibategian dokumentaturik dauden bakarrak direnez hementxe utzi beharrean gaude gure jarduna.

Hau guztia esan ondoren badirudi txikikeriez mintzo gabela —gaisotutako txakur batzuk gora behera—. Hala ere egun dokumentuetan hotz-hotz ageri zaizkigun berri hauek bere garaian bazterrak ederki nahasi zituzten, argi ikusi genuen XIX. mendeko izurriteei buruzko lantxo hartan. Gaitzek gure herriaren jolabidean eragin izan dute urteen poderioz, ezin esan, bada, hutsaren hurrena direnik.

Kasu honetan esandakoak zerbait ikusteko balio izan behar digu osasungintza publikoa astintzen duten haizeak inoiz baino gogorrago ari diren sasoi hontan, osasuna eskubide bat dela eta ez negozio bat alegia.

ERNESTO GUARDIOLA
Lezon 1992ko Uztailaren 26an

